

## Ostiralean, 2022-ko U12-ko mobilizazioaren harira atxilotutako 2 pertsona epaituak izango dira

---

LA HAINE - EUSKAL HERRIA :: 16/09/2024

Hau salatzeke eta epaituei elkartasuna adierazteko, Iruñeko epaitegi aurrean elkarretaratzea deitu du ASKE antolakundeak.

2022-ko Urriaren 12an ASKE antolakunde antirrepresiboak Hispanitate eta Espainako armadaren kontra manifestazioak deitu zituen Euskal Herriko hainbat eskualdetan, Donostia, Mungia, Gasteiz eta Iruñean. Azken honetan arratsaldeko seiak aldera Vox-eko kide bat bertaratu zen Nabarreriarra, espainako bandera batekin, manifestazioa hasi baino lehen. Hona iristean han bilduta zegoen jendea irain zuen eta andre bati listua bota zion. Honek manifestarien erreakzioa sortu zuen eta tensio uneak bizi izan ziren, manifestariak Vox-eko kidea kanporatu zuten arte. Hau gauzatzen zen bitartean Navarra Television-eko kamarak dena grabatzen hari ziren, izan ere Vox-eko kidearekin batera bertaratu ziren manifestazioaren deialdira, gero sare sozialetan ipiniz. Hauek grabatutako bideoa eskuineko sektoretan zein egunkarietan polemikak sortzeko eta manifestariak kriminalizatzeko erabilia izan zen eta nafarroako alderdi instituzional guztiak manifestarien jarrera kondenatu zuten, EH Bilduren bozeramailea barne, Joseba Asiron.

Testuinguru honetan, 2022ko urriaren 20an 2 pertsona atxilotu zituen polizia espainolak, gorroto delituak leporatuz. Datorren ostiralean, Irailaren 20an, bi pertsona hauek epaituak izango dira. Horregatik elkarretaratzea deitu du ASKE antolakundeak egun horretan Iruñeko Epaitegi aurrean, eguerdiko 12:15etan.

---

<https://eh.lahaine.org/ostiralean-2022-ko-u12-ko>